

Nafarroako Klima Aldaketaren Foru Legearen ELAren balorazioa

***Klima aldaketaren aurrean behar
bezain anbiziotsua ez den eta
inolako neurri fiskalik jasotzen ez
duen legea***

2022ko apirila



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

Nafarroako Parlamentuak onartu berri duen Klima Aldaketari buruzko Legea, ELAren ustez, ez da nahikoa izango aurrean dugun erronkari erantzuteko: gizarteak eta planetak behar duten trantsizio ekologikoa gauzatzea. Europako Funtsen itzalean, haien norabide berari jarraitzen dio, ez dago aurrerapenik garapen-eredua aldatzeko. Gainazaleko aldaketak benetan aldatu behar diren arloetan eta diru publikoa enpresa pribatuak eta proiektu handiak finantzatzen jarraitzeko, AHT edo Aroztegia kasu, hau da, jarraitu behar denaren kontrako norabidea.

1. Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Nafarroako Legearen balorazioa

1.1 Ez dago neurririk zehatzik berotegi-efektuko gasak murrizteko helburuak lortzeko

Jakina da klima aldaketa berotegi efektuko gasek (BEG) eragiten dutela, eta beraz, klima aldaketa geldiarazteko BEG emisioak murriztea ezinbestekoa da. Honen jakitun, Europar Batasunak bere klima aldaketa estrategia guztietan emisioen murrizketa sakonak egitera behartuko ditu EBko estatukideak: 2030erako emisioen %55 murriztea eta 2050erako emisioetan neutroak izatea. Eta helburu zorrotzak diruditen arren, ebidentzia zientifikoak eskatzen duena baino eskasagoak dira. Guzti hau jakinik, onartu den Nafarroako Klima Aldaketa Legeak bere egiten ditu helburu hauek baina ez du helburu hauek betetzeko inongo neurri edo araurik proposatzen, beraz Legearen eraginkortasuna oso murrizta izango da.

1.2 Ez da helbururik edo neurririk ezartzen energia fosilen kontsumoa murrizteko eta erabilera murrizteko

Energia alorrean egin beharreko trantsizioa ere lege honek bere gain hartu behar du. Helburuetan aipatzen da energia berriztagarriekin Nafarroako energia beharrei erantzun behar zaiela, baina ez du energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumoan helburu konkreturik aipatzen. Emisioen zati handi bat energia sorkuntzari dagokiola jakinik, berriztagarrietan helburu anbiziotsu eta lotesleak zehaztu behar ziren lege honetan, eta ez dute egin. Berriztagarrien bidezko energia sorkuntza, kontsumo murrizketa eta fosilen erabilera gutxitzearen inguruko helburuak eta neurriak ez dira aipatzen. Kontrako norabidean neurriak hartu dira ordea, soluzio faltsuak diren hidrogeno berdea eta erregai sintetikoak bultzatzeko tresnak proposatuz.

Eskala txikiagoan, autokontsumoa eta komunitate energetikoei bultzada emanten die lege honek, eta hau positiboa izango da, baldin eta enpresa pribatuentzat negozio aukera gisa planteatzen ez bada. Nola nahi ere, autokontsumoa soilik ez da nahikoa izango, ezta gutxiago ere, bidezko trantsizio energetikoa egiteko. Trantsizioa energetikoaren 3 ardatz nagusiak kontsumoa murriztea, sistema energetikoa berriztagarrietan oinarritzea eta elektrifikazioa izan behar dira, eta beraz, lege honek ez du bidezko trantsiziorik ahalbidetuko.

1.3 Azpiegitura eoliko eta fotovoltaiko asko izapidetzen ari dira jada inolako luzamendurik aplikatu gabe

Azpiegitura eoliko eta fotovoltaikoak ezartzeko lehentasunezko eta erreserbako lur eremuak zehaztea positiboa da, baldin eta ingurumen eta gizarte irizpideak erabiltzen badira. Irizpideak ezartzerakoan interes ekonomikoak lehenesten badira, mapa hori ez da onargarria izango. Bestalde, aipatu behar da lege honek jasan dituen atzerapenen ondorioz, azpiegitura asko jada tramitatzen ari direla. Duela 2 urte hainbat eragilek aldarrikatu genuen moratoria aplikatu izan balitz, mapa honek zentzu gehiago izango luke, orain beranduegi izan daiteke.

1.4 Garraio publiko kolektiboa bultzatu eta mugikortasuna murriztu behar da

Mugikortasunak pisu handia izan behar du klima aldaketa geldiarazteko politiketan, energia fosilean oinarritzen baita pertsonen eta merkantzien garraioaren gehiengoa. Beharrezkoa da AHT bezalako trenbide azpiegitura bidegabeak bertan behera uztea, mugikortasuna murriztea eta garraibide kolektiboak bultzatzea.

Gertuko trenbide sarea da eredu aldaketa ahalbidetzeko alternatibarik egokienetakoa. Baita hiri eta herrien arteko konexio hobeak bultzatzea errepideko garraio publiko kolektibo bidez ere. Bi helburu hauek legeak bere baitan hartu ditu eta arlo positibo bezala azpimarratu behar dira. Baina ereduari buelta emateko ez dira nahikoak, garraio publiko kolektiboa bultzatu behar da, baina gakoa mugikortasuna murriztean datza.

Bestalde, ibilgailuen elektrifikazioa aipatzen da jabetza publikoko hainbat garraibidetan (autobusak eta zerbitzu ibilgailuak), baina ez da helbururik eta neurririk hartzen ibilgailu pribatuen elektrifikaziorako, eta hau ere beharrezkoa izango da mugikortasunaren gutxitzearekin batera.

1.5 Ez da neurririk hartzen gehien kutsatzen duten enpresak eraldatzeko

Hutsune handienetakoa hala ere, industria sektorean aurkitu dugu. Industria jarduera batzuk kutsatzaileak dira eta sektorea hauen eraldaketarako hainbat neurri hartu beharko liriateke klima aldaketaren aurkako edozein politika publikoren baitan, garraioarekin eta energia sorrerarekin batera, BEG gehien igortzen duen jarduera baita.

Ez da nahikoa enpresa mota batzuei emisioen kuantifikazioa eta murrizketa helburuak ezartzea, sektore hauen eraldaketarako neurririk ez bada hartzen. Azpimarratzekoa da mehategiei aipamenik ez egitea, Nafarroak duen mehatxu handienetarikoa dira momentu honetan, eta etorkizuneko eredu jasangarri batean lekurik ez dute izan behar. Industriak bultzatzen dituen tentsio altuko lineak ere ez ditu mugatzen lege honek, eta hau ere ezinbesteko neurria da lurralde eredu jasangarri baterantz bidea egiteko.

1.6 Nekazaritzako nekazaritza ekologikoa bultzatzeko aukera bat galtzen da

Nafarroan lehen sektoreak duen pisua ikusita eta eredu industrialak duen zabalkundea kontuan izanda, aukera paregabea zen nekazaritza agroekologikoari bultzada handiagoa emateko, baina hartutako

neurriak laguntza hutsetara mugatzen dira soilik. Nekazaritza eta basogintza eredu iraunkorrak lehentasuna izateko eta eredu nagusia izateko ez da nahikoa proposatzen dena. Abeltzantza ustategi industrialek BEG emisio kopuru handia suposatzen dute eta ez dago inongo neurririk horiei mugak jartzeko.

1.7 Klima Aldaketarako Herritarren Batzarra

Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea beharrezkoa da kalitate demokratikoa hobetzeko, betiere edukia ematen bazaie. A priori Foru Lege honetan onartu den Klima Aldaketarako Herritarren Batzarra positiboa da, baina ikusteke dago beste hainbatetan eratu diren parte-hartze guneen garrantzi bera izango duen ala ez. Hau da, erabakitzeke gaitasunik gabeko kontsulta-espazio bat, beraz, erabakietan benetako parte-hartzerik izango ez duena ote den.

2. Beste behin ere erabaki da fiskalitatea ez ukitzea

Foru Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ingurumen fiskalitateari buruzkoa jasotzen da, argudiatuz zerga politika tresna bat dela ingurumenaren aldeko ekintzak eta jarrerak sustatzeko eta kliman eragin larria duten jarduerak gutxieteko. Hala da, eta horren erakusgarri da fiskalitate berdea funtsezko atala dela Europako herrialdeetako ingurumen-politikan.

Foru lege horren negoziazio parlamentarioaren fasean propaganda handia egin zen alderdi fiskalarekin. Besteak beste, EH Bilduk lege horren alde egitea erabakitzera fiskalitate berdeko neurriak sartzeagatik.

Baina Foru Lege honek ez du inolako eragin fiskalik. Lege honetan onartutakoak ez du inolaz ere aldatzen Nafarroako zerga-politika, gaur egun fiskalitate eskasa baita (BPGren 10,9 puntu gutxiago biltzen dira EBko batez bestekoa baino), bidegabea (zuzeneko zergen bidez biltzen diren 10 eurotik 7 laneko errentak dira) eta permisiboa enpresen eta enpresa- eta kapital-errenten iruzur fiskalarekin. Lege honen bidez, berriz ere alferrik galtzen da fiskalitatea aldatzeko aukera bat, ez baita jasotzen neurri edo mugaketa fiskal zehatzik.

Foru lege honek jasotzen duen gauza bakarra da 2 urteren buruan Nafarroako Parlamentura Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat edo batzuk bidaltzeko konpromisoa, foru lege hauen helburuak hobeto betetzeko egokitzat jotzen diren ingurumen fiskalitateko neurriak jasoko dituztenak.

Azken batean, konpromiso bakarra lege-proiektu bat (edo batzuk) egitea da, baina ez da zehazten zertan dautzan edo zer neurri jaso behar dituzten. Gainera, 2 urte barru Nafarroako Gobernuak aldatuta egongo da. Hau da, gerta daiteke hurrengo Nafarroako Gobernuak lege-proiektu bat aurkeztea enpresei zerga-karga are gehiago jaisteko, eta, horrela, foru lege honetan itundutakoa betetzea.

3. Ondorioak eta ELAren alternatiba

Lehen puntuan aipatutako atalak aztertu ondoren, esan dezakegu, Nafarroako Parlamentuak onartu duen Klima Aldaketa Legeak ez diola klima aldaketari modu eraginkorrean aurre egingo, eta Nafarroako gizartea behar duen trantsiziotik urrun geratuko dela.

Zoritxarrez, ez dago denborarik galtzeko, eta larrialdi-egoera honen aurrean neurri zorrotzak eta handinahiak hartu behar dira: planetaren eta gizartearen mesederako neurriak, kapitalari mesede egingo ez diotenak langileriaren miseriaren truke.

ELAk Nafarroako Parlamentuan ezkerretik oposizio irmoagoa egitea faltan bota du. Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea aho batez onartu da Nafarroako Parlamentuan, AHTa, Aroztegia Jauregia, Nafarroako Ubidea, makrogranjak edo La Mugako meategia bezalako obrak zalantzan jartzen ez diren bitartean. Gainera, zerga-arloko aurrerapenak dituela saltzen da, baina Jaurlaritzak Proiektu bat (edo batzuk) aurkezteko konpromisoa baino ez du jasotzen, ez baitakigu zer eduki duen.

ELAk uste du Klima Aldaketaren Legea onartzea, AHTk indarrean duen eredu jasanezina zalantzan jarri gabe, erabateko inkoherentzia dela, eta Nafarroako Gobernuaren ingurumen-jasangaitza den ekintza makillatu besterik ez duela egiten. Greenwashing hutsa da.

Lege horrek ez du ahalbidetuko langileok behar dugun trantsizioa. Trantsizioa ez da hazkunde amaigabearen paradigmari jarraituz egingo, baizik eta hainbat arlo eta sektoretan murriztu beharko da bidezko trantsizioa gauzatzeko. Foru lege honekin aukera bat galdu da, eta politika publikoek interes ekonomikoei mesede egiten jarraituko dute.

Hauek dira ELAren proposamenak:

- Beharrezkoa da kontsumo energetikoa modu esanguratsuan murriztea, efizientzia energetikoa hobetzea eta modu arduratsuagoan energia sortzea. Castejongo zentralek, edo hondakinak errez energia sortzen duten instalazioek, ez dute tokirik eredu honetan.
- Parke eoliko eta fotovoltaikoen eraikuntzan hausnarketa bat egin behar da, eta bitartean moratoria bat ezarri. Kasu batzuetan kaltegarriak direlako paisaiarentzat, biodibertsitatearentzat, pribatizazioa suposatzen duelako, enpresa handien mesederako soilik direlako eta ez kontsumitzaile txikien mesederako. Azken finean, inpaktu sozial eta ekologiko handia dutelako.
- Bultzatu behar den eredu energetikoa azpiegitura handietatik urrundu eta diseinu deszentralizatu eta deskontzentratu batean oinarritu behar da. Autokontsumoak gero eta indar handiago izan behar du, beraz askoz gehiago bultzatu behar da, ez soilik administrazio publikoaren eraikinetan.
- Energia berriztagarrien sorkuntza toki "humanizatueta" egin behar da, hau da, industrialdeetan edo eraikinen teilatueta. Debekatu egin behar da lur emankorretan instalatzea, lurra baliabide urria delako, ez delako berriztagarria eta elikadurarako beharrezkoa delako.
- Garraio publiko kolektiboa da bultzatu beharreko garraio eredu. Abiadura Handiko Trena bezalako azpiegiturak ez dute lekurik eta zentzurik eredu honetan, trenbide sare publiko eta soziala da bultzatu beharrekoa, pertsona guztien esku dagoena, herriak eta eskualdeak lotzen dituena, inpaktu ekologikorik suposatuko ez duena, dagoeneko eraikita dagoena, baina hobetu behar dena. Neurriak zentzu honetan hartu behar dira.
- Herrien arteko komunikazioa hobetzeko ildoari jarraituz, behar beharrezkoa da autobus zerbitzu eraginkorrak izatea, energia berriztagarriak erabiliko dituztenak eta pertsonen beharrei eta eskariari erantzungo diotenak, errentagarritasunaren irzpidia alde batera utziz.

- Gertuko desplazamenduetarako bizikleta bultzatu behar da, azpiegiurak hobetuz, sareak zabalduz eta bizikleta parke publikoen aldeko apustua eginez.
- Ezinbestekoa da nekazaritzarako lurzorua babestea eta agroekologiara zuzenduriko azalera gehitzea. Makrogranjen eredua, kaltegarria da guztiz, eta debekatu egin behar da.
- Elikadura burubajetza lortzeko neurriak hartu behar dira, CO2 emisioak xurgatzeaz gain, ekonomia birkokatzeke eta osasuna, ingurumena eta azken batean, bizitza erdigunean jartzeko tresna paregabea delako.
- Jasangarriak ez diren baso mozketek izugarritzko ingurumen kaltea sortzen dute. Basogintza iraunkorrek ordea, lurzorua babesten du eta klima aldaketari aurre egiten dio. Iraunkorra izan behar da bultzatu behar den eredua.
- Bestalde, ezinbestekoa da ekonomia birkokatzea, globalizazioak eta internazionalizazioak ekarri dituen eragin ekologiko kaltegarriei aurre egiteko eta etorkizun urbilean etorriko zaizkigun energiaren eta materialen eskasiek eragin gutxiago izan dezaten.
- Sektore ekonomikoei dagokienez, egunero ikusten dugu hainbat sektore industrialek, energia eta materialetan duten gehiegizko kontsumoagatik edo duten berotegi efektuko gasen emisio handiengatik redimentsionatu egin beharko direla, eta kasu batzuetan desagertu ere egingo direla, horrek dakarren enplegu galerarekin. Baina jasangarriak diren beste sektore batzuk garatu daitezke enplegu jasangarriak sortuz: berriztagarriak, garraio kolektiboa, elikadura burujabetza, edo hondakinen kudeaketa iraunkorra esaterako. Sektore batzuetan enplegua galduko da, baina beste hauetan enplegu hori sortzeko neurriak hartu behar dira.
- Industriak trantsizio ekologiko bat izan behar du, baina justua eta demokratikoa, inor kanpoan utziko ez duena. Langileon eta gizartearen mesederako egingo dena eta ez interes ekonomikoen mesederako.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA